

BALIO-PROPOSAMENA

Argi dago gaur egun itsas inguruneko zaborra mundu-mailako arazo bat dela, egunetik egunera handituz doana. Halaber, jendearen kontzientziazio ezagatik, hondakinen kontrolik gabeko isurketa sortzen da, lehendabizi, ibaietara doana, eta handik, itsaso eta ozeanoetara, non hainbat animalien heriotza ekartzen duen. Beraz, hori guztia ekiditeko edo murrizteko asmoz, *EkoWave* izeneko proiektua sortu dugu: hasiera batean Zumaia-Deba kostaldeko ibaietan zein itsas ertzeetan geratzen den zaborra biltzen arituko dena, eta kontzientziazioa zabalduz doan heinean haratago iristea espero dugun olatua.

Zerbitzuaren izena, ekologia (Eko-) zein ingelesezko olatu (-Wave) izenetik dator. Izen horrekin olatuek itsas ertzeetara eramaten duten zaborra jasotzea helburu dugula adierazi nahi dugu. Era berean, kostaldea garbiagoa ikusteaz gain kontzientziazioa bultzatu beharraz gehiago hitz egin behar dugula adierazi nahi dugu.

Proiektu honetan jardungo dugun pertsonak, langileok zein kutsaduraren kontra dauden boluntarioak izango gara elkarlanean. Horrela, proiektuari hasierako hauspotzea eman eta lana koordinatuko duten profesionalen gain, itsas-inguruneko arazo hau ekidin nahi duten pertsona guztiek parte har dezakete. Ahalik eta herritar gehienek parte hartzea da gure helburua.

Bildutako hondakinak gune irisgarrietan biltzen ditugun kasuetan zuzenean kamioiek jasoko dute; baina Geoparkeko kostaldea bezalako irisgarritasun eskasa dugun kasuetan, helikoptero baten laguntzaz baliatuko gara. Honek, *EkoWave* proiektuko partehartzaileek zorro handietan bildutako zaborra kamioientzat irisgarria den eremuetara garraiatuko luke denbora-tarte labur batean.

Bildutako zaborra *Tecnoeraser*-era eramango dugu, bertakoek banatu, birziklatu eta erabilera berri bat eman diezaioten. Bestalde, ez genukeen inolako diru-iturririik eskatuko, esan bezala, gure helburua ez baita dirua lortzea, baizik eta ingurunea garbi mantentzea.

Zaborra biltzeko ekintza hauek hiru hilean behin antolatuko ditugu arazo global hau modu jarraituan gertatzen dela gogorarazteko, proiektuak jarraipen bat izan dezan, kostaldea txukun ikus dadin beharrezkoa iruditzen zaigu alde batetik; bestetik, gure baliabide ekonomikoez eta masa sozialaz modu eraginkorrean baliatzeko, bigarren hauek maiztasunagatik *erre* gabe.